

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA

09/2021 Foru Agindua, martxoaren 17koa, Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapenerako Zerbitzuko «Udalekuak 2021» eta «Gazte Oporraldiak 2021» udako kanpainak arautzen dituen kudeaketa prozedura.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzak, Gazteria eta Kirol Departamentuak, Arabako eta Bizkaiko foru aldundiekin koordinaturik, aisia eta astialdiko eremuen barruan zenbait jardura antolatzen ditu urtero, Gipuzkoako haurrek eta gazteek naturarekin harremanetan hezkuntzazko aisia bizi dezaten eta oporraldiak gozatzeko aukera izan dezaten.

Hori dela eta, Gipuzkoako Foru Aldundiak «Udalekuak» eta «Gazte oporraldiak» izeneko kanpainak antolatu ditu hainbat alditan. Hala, komeni da 2021ekoak arautzea xedapen honen bidez.

Horregatik guztiagatik, Kultura, Lankidetzak, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuak,

EBAZTEN DU

1. artikulua. Helburua.

1. Foru agindu honen xedea da «Udalekuak 2021» eta «Gazte Oporraldiak 2021» udako kanpainak arautzea. Gipuzkoako Foru Aldundiak berak Gipuzkoako umeentzat 728 plaza eta gazteentzat beste 347 eskainiko ditu.

2. Hauek dira «Udalekuak 2021» kanpainako onuradunak: 7-13 urte bitarteko umeak, adinen arabera hiru taldetan banatuta: 7-8 urte bitartekoak, 9-11 urte bitartekoak eta 12-13 urte bitartekoak. 7 eguneko egonaldiak eskainiko zaizkie. Egonaldiak 2021eko uztailaren 1etik abuztuaren 7ra bitartean egingo dira, biak barne.

«Gazte Oporraldiak 2021» kanpainako onuradunak, berriz, 14-17 urte bitarteko nerabeak dira (7, 10, 11 eta 12 eguneko egonaldiak) eta uztailaren 1etik abuztuaren 7ra bitartean egingo dira, biak barne.

3. «Udalekuak» eta «Gazte Oporraldiak» kanpainen arauak interpretatzeko, kontuan hartu behar dira horien bidez lortu nahi diren helburuak. Hauek dira:

– Gipuzkoako haurren eta nerabeen taldeek udako oporrak naturarekin harremanetan igarotzeko aukera edukitzea.

– Parte-hartzaileen arteko jolasa eta bizikidetzak bultzatzea.

– Hezkuntzazko aisia sustatzea.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE CULTURA, COOPERACIÓN, JUVENTUD Y DEPORTES

Orden Foral 09/2021, de 17 de marzo, por la que se establece Procedimiento de gestión de los programas de verano, «Udalekuak 2021» y «Gazte Oporraldiak 2021», del Servicio de Promoción de la Infancia, Adolescencia y Juventud.

El Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deporte de la Diputación Foral de Gipuzkoa organiza anualmente, en coordinación con las Diputaciones Forales de Araba y Bizkaia, diversas actividades infantiles y juveniles, dentro del campo del ocio y del tiempo libre, con el propósito de potenciar el ocio educativo en contacto con la naturaleza y de facilitar el disfrute de períodos vacacionales a las/os niñas/os y jóvenes de Gipuzkoa.

Para ello, la Diputación Foral de Gipuzkoa ha venido organizando las diversas ediciones de las campañas de verano «Udalekuak» y «Gazte Oporraldiak», que en su edición del año 2021 procede regular por la presente disposición.

En su virtud, el diputado foral del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deporte,

RESUELVE

Artículo 1.º Objeto.

1. Constituye el objeto de la presente Orden Foral la regulación del desarrollo de las campañas de verano «Udalekuak 2021» y «Gazte Oporraldiak 2021» para un total de 728 niñas y niños y 347 jóvenes de Gipuzkoa, que serán ofertadas directamente por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

2. La campaña «Udalekuak 2021» se destinará a los niñas y niños de 7 a 13 años, divididos en tres subgrupos de edad: 7 a 8 años, 9 a 11 años, y 12 a 13 años. Se les ofrecerán turnos de 7 días de duración, que tendrán lugar entre el 1 de julio y el 7 de agosto de 2021, ambos inclusive.

La campaña «Gazte Oporraldiak 2021» destinará a jóvenes adolescentes de 14 a 17 años turnos vacacionales de 7, 10, 11 y 12 días de duración, entre el 1 de julio y el 7 de agosto, ambos inclusive.

3. Para la interpretación de los preceptos reguladores de las campañas de verano «Udalekuak» y «Gazte Oporraldiak», se deberá tener en cuenta que los objetivos que se pretenden obtener con las mismas son los siguientes:

– Facilitar a grupos infantiles y adolescentes de Gipuzkoa un período vacacional durante la época estival en contacto con la naturaleza.

– Favorecer el entretenimiento y la convivencia entre quienes participan.

– Potenciar el ocio educativo.

– Kanpainen parte hartzen dutenek beren bizitzako esparru guztietan euskara komunikazio tresna gisa erabiltzea sustatzea.

– Parte-hartzaileei leku bakoitzeko ohitura eta baliabide kulturalak ezagutzera ematea.

– Adiskidetasun-, elkartasun- eta aniztasun-jarrerak bultzatzea; nesken eta mutilen arteko, haien etnia, jatorria, erlijioa, hizkuntza, generoa, sexu-identitatea edo egoera sozioekonomikoa edozein izanda ere.

– Haurren arteko berdintasuna bultzatzea, estereotipoak eta diskriminazio-jarrerak saihestuz.

2. artikulua. Parte-hartzaileak.

«Udalekuak 2021» eta «Gazte Oporraldiak 2021» kanpainen, 2004-2014 bitartean (biak barne) jaiotako eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko edozein udalerritan erroldatutako ume eta nerabe guztiak har dezakete parte.

Plaza guztietatik % 5 heziketako behar bereziak dituzten parte-hartzaileentzat gordeko dira, gizatalde horiez arduratzen diren erakundeekin koordinatuta.

3. artikulua. Eskaerak eta lekuen esleipena.

1. Lekuak notario aurrean egindako zozketa publikoaren bidez esleituko dira, 2021eko apirilaren 27an.

2. Eskaerak inprimaki ofizialetan aurkeztu beharko dira Gipuzkoako Foru Aldundiko Haur, Nerabe eta Gazteen Zerbitzuko Gaztegunean (Anoeta pasealekua, 28 Donostia). Internet bidez ere aurkez daitezke web orrian:

– Udalekuak: www.gipuzkoangazte.eus/udalekuak.

– Gazte Oporraldiak: www.gipuzkoangazte.eus/GO.

Argibide gehiago lortzeko, kanpain laguntzen duten Gipuzkoako Lurralde Historikoko informazioko udal bulegotara deitu edo joan daiteke.

Eskaerak epe honen barruan aurkeztu beharko dira:

– Apirilaren 13tik 20 bitartean.

3. Eskaera inprimaki bakoitzean interesatuak hiruentzako lekua eska dezake gehienez, eta 5 txanda desberdin aukera ditzake, norberaren lehentasunezko hurrenkeraren arabera.

Lekua lortzeko aukeren berdintasuna bermatzeko, parte-hartzaile bakoitzari gehienez eskaera inprimaki bat onartuko zaio.

4. Gipuzkoako Foru Aldundiak egokitzat jotzen duen dokumentazioa eskatu ahal izango dio edozein onuradunari, ezarritako baldintzak eskatzaile guztiak betetzen dituztela bermatzeko.

5. Eskaerak ez baditu ezarritako betekizunak betetzen, interesatuari errekerimendua bidaliko zaio akatsa edo akatsak zuzen ditzan edo aurkeztu gabe utzitako agiriak aurkez ditzan, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egindakotzat joko zaiola.

6. Jardueretan parte hartuko duten umeen kopurua ahalik eta handiena izan dadin, lekuen esleipenean lehentasuna emango zaie aurreko urteetako kanpainatan parte hartu ez zutenei.

7. Lekuen esleipena honako hau izango da:

* Irizpide nagusiak:

– Bi adin tarteak (7-13 y 14-17) kanpaina berezi bezala hartuko dira.

– Azken 4 urteak hartuko dira kontuan taldeen lehentasunak esleitzeko.

– Fomentar el uso del euskera como medio de comunicación en todos los ámbitos de la vida de los/as participantes en la campaña.

– Dar a conocer a los y las participantes las costumbres y recursos culturales de cada zona.

– Potenciar actitudes de compañerismo, solidaridad y aceptación de la diversidad; impulsando la convivencia de niñas y niños independientemente de su etnia, origen, religión, lengua, género, identidad sexual o posición socioeconómica.

– Impulsar la igualdad entre niños y niñas, evitando estereotipos y actitudes de discriminación.

Artículo 2.º Participantes.

Pueden solicitar la participación en la campaña de «Udalekuak 2021» y «Gazte Oporraldiak 2021» todas las niñas y niños y adolescentes empadronados en cualquiera de los municipios del Territorio Histórico de Gipuzkoa, nacidos entre los años 2004 y 2014, ambos inclusive.

El 5 % del total de las plazas quedarán reservadas para participantes con necesidades educativas especiales, en coordinación con las entidades de atención a dichos colectivos.

Artículo 3.º Solicitud y adjudicación de plazas.

1. Todas las plazas se adjudican mediante sorteo público ante notario/a el día 27 de abril de 2021.

2. Las solicitudes para participar en el sorteo deberán ser presentadas en los impresos oficiales en el Gaztegune del Servicio de Infancia, Adolescencia y Juventud de la Diputación Foral de Gipuzkoa (sito en Paseo de Anoeta, 28 San Sebastián), o por Internet, accediendo a la página Web del programa:

– Udalekuak: www.gipuzkoangazte.eus/es/udalekuak.

– Gazte Oporraldiak: www.gipuzkoangazte.eus/es/GO.

Para obtener más información se puede llamar o dirigirse a las oficinas municipales de información del Territorio Histórico de Gipuzkoa que colaboran con la campaña.

Las solicitudes para ambos programas se deberán de presentar dentro del plazo siguiente:

– Del 13 al 20 de abril, ambos inclusive.

3. En cada impreso de solicitud, quien tenga interés podrá solicitar la plaza para un máximo de tres personas, y elegir en la misma en orden a su preferencia 5 turnos diferentes.

Para asegurar la igualdad de oportunidades a la hora de conseguir una plaza, no se admitirá más de un impreso de solicitud por participante.

4. La Diputación Foral de Gipuzkoa se reserva el derecho a solicitar a cualquier beneficiario/a cuanta documentación es-tí-mo oportuna, en aras a que todas las personas solicitantes cumplan los requisitos exigidos.

5. Si la solicitud no reuniese los requisitos exigidos, la persona interesada será requerida para que subsane la falta o faltas o acompañe la documentación correspondiente, apercibiéndole que, de no hacerlo así, se le tendrá por desistida en su petición.

6. Con el objeto de que el mayor número de niños y niñas puedan participar en las actividades, en la adjudicación de plazas se dará preferencia a aquellos y aquellas que no participaron en las campañas anteriores.

7. El sistema de adjudicación de plazas será el siguiente:

* Criterios generales:

– Se tomarán los dos tramos de edad (7-13 y 14-17) como dos campañas independientes.

– Se tendrán en cuenta los últimos 4 años para adjudicar la prioridad a los grupos.

– Plazen banaketa 4 tartetan egingo da (A-B-C-D), esleituta-lehentasunen arabera.

– Aurreko 4 urtetan zozketan egokitutakoak zehatu egingo dira.

– Onuradun izango dira, aurreko lau urteetan zozketarako izena eman eta zozketan egokituta ez direnak izan.

* Taldeen lehentasuna ondoren adierazten den eran zehaztuko da:

– Talde guztiek 24 puntu izango dituzte hasieran. Kontuan izango da parte hartzaile bakoitzaren egoera aurreko 4 urteetan arabera. Horrela, puntuak kenduko dira txandaren batean tokatu zaien urteengatik eta puntuak gehituko zaie zozketarako izena eman eta txanda inoiz egokitu ez zaienei.

– Parte hartzaile guztiak aurreko urteetan zozketarako izena eman eta txanda inoiz egokitu ez zaien taldetan, puntu bat gehituko da izena emandako urte bakoitzeko.

– Lehenengo aldiz zozketarako izena emandako taldeetan, baita noizbait tokatu zaien taldeetan ere, parte hartzaileei puntu 1 kenduko zaie aurreko urteetan txanda egokitu zaien urte bakoitzeko. Talde bakoitza 1, 2 edo 3 lagunek osa dezaketez, probabilitateak berdintze aldera, horrela jokatu da:

1 kideko taldea: Lehentasuna = 24 - (parte hartutako urte kopurua x 6).

2 kideko taldea: Lehentasuna = 24 - (parte hartutako urte kopurua x 3).

3 kideko taldea: Lehentasuna = 24 - (parte hartutako urte kopurua x 2).

* Zozketarako, 4 tarte ezarriko dira (A, B, C eta D), eta horietan banatuko dira parte hartzaile guztiak, lortu duten pisuaren arabera, puntuazio honi jarraikiz:

A tarte: 27-25 puntu bitarteko lehentasuna.

B tarte: 24-17 puntu bitarteko lehentasuna.

C tarte: 16-9 puntu bitarteko lehentasuna.

D tarte: 8-0 puntu bitarteko lehentasuna.

* Talde bakoitzaren barruko lehentasunen arteko aldeak orekatzeko, txartelen banatzeko sistema hau aplikatuko da:

– El reparto de plazas se realizará en 4 tramos (A-B-C-D) según las prioridades adjudicadas.

– Se penalizará a las personas agraciadas en el sorteo en los 4 años anteriores.

– Se beneficiará a las personas inscritas en el sorteo en los 4 años anteriores y que no hayan sido agraciadas en el sorteo.

* Para determinar la prioridad de los grupos se seguirán los siguientes pasos:

– Todos los grupos contarán con 24 puntos de salida. Teniendo en cuenta la situación de cada participante en relación a los 4 años anteriores. Así, se restarán puntos por años en los que hayan sido agraciados en el sorteo y se sumarán puntos a las personas inscritas en el sorteo y que no les haya tocado nunca.

– En los grupos con todos los participantes inscritos en el sorteo en años anteriores que no les haya tocado nunca, se añadirá un punto por cada año inscritos.

– En los grupos con participantes inscritos en el sorteo por primera vez o más veces y que les haya tocado alguna vez, se restará 1 punto a cada participante por cada uno de los años anteriores en los que hayan sido agraciado. Ya que cada grupo puede estar formado por 1, 2 o 3 participantes, para igualar probabilidades, se procederá de la siguiente manera:

Grupo de 1 persona: Prioridad = 24 - (n.º de años participado x 6).

Grupo de 2 personas: Prioridad = 24 - (n.º de años participado x 3).

Grupo de 3 personas: Prioridad = 24 - (n.º de años participado x 2).

* Se establecerán 4 tramos diferentes para el sorteo (A, B, C y D) entre los cuales se repartirán todas las personas participantes dependiendo del peso obtenido, según la siguiente puntuación:

Tramo A: Prioridad 27-25 puntos.

Tramo B: Prioridad 24-17 puntos.

Tramo C: Prioridad 16-9 puntos.

Tramo D: Prioridad 8-0 puntos.

* Para equilibrar las diferencias de prioridades dentro de cada uno de los grupos, se aplicará el siguiente sistema de reparto de boletos:

Tartea	Lehentasunak	Txartel kop.	
A	27-25	27	3
		26	2
		25	1
B	24-17	24-23	3
		22-20	2
		19-17	1
C	16-9	16-15	3
		14-12	2
		11-9	1
D	8-0	8-6	3
		5-3	2
		2-0	1

Tramo	Prioridades	N.º boletos	
A	27-25	27	3
		26	2
		25	1
B	24-17	24-23	3
		22-20	2
		19-17	1
C	16-9	16-15	3
		14-12	2
		11-9	1
D	8-0	8-6	3
		5-3	2
		2-0	1

* Plazen zozketa tarteen arabera egingo da; hau da, A taldekoen artean lehenik (aurreko urteetan zozketarako izena eman dutenak eta egokituta izan ez diren horiek izango dira); ondoren, banaketa egin eta libre geratzen diren plazekin, B tarteko arteko (gutxien parte hartu dutenak) banaketa egingo da; ondoren, gainerako plazak C tarteko artean banatuko dira; era berean libre gelditzen diren plazak, D taldearen artean banatuko dira.

* Lau tarteen txartelen banaketa bera izango da, eta horrela ez dira zozketan lau zenbaki atera behar. Horrela, haur batzuek zozketarako zenbaki bera izan ditzakete, baina tartea izango dute desberdin orduan.

* Azkenean geratzen den itxaron zerrendak tarte sistema bera izango du.

8. Zozketan onartutako zerrendak bi egunez kontsultatu ahal izango dira izen-emate lekuetan eta Interneten, errekamazioak egiteko aukerarekin:

– 2021eko apirilaren 21an eta 22an.

9. Zozketa egiten denean zenbaki bat aterako da ausaz. Ondoren, A taldetik hasita, taldeen zenbaki hurrenkeraren eta egindako aukeraren arabera esleitu dira gainerako lekuak.

Taldeakide guztientzat leku liberrik baldin badago, aukeratu-tako lehen txanda esleitu zaio taldeari. Lehen txandan lekuri ez baldin badago, bigarren txanda esleitu zaio taldeari, eta horrela hurrenez hurren.

10. Egin dituzten aukeretatik inon ez badago taldeakide guztientzako lekuri, berriro esleipen prozedura hasiko da hurrengo taldearekin.

11. Zozketan lekuri gabe geratu direnak itxaron zerrendan sartuko dira. Zozketan sarituak izan direnek behin-betiko izena emateko epea iragaten denean, uko egindako leku guztiak itxaron zerrendan daudenen artean banatuko dira.

12. Lekuen esleipena argitara emango da zozketa egin bezain laster.

13. Ezarritako epea amaitu baino lehen ez bada gauzatu dagokion kuota osoaren ordainketa, leku horiek hutsik dauden lekuen zerrendan sartuko dira.

Kuotaren ordainagiriarekin batera, honako dokumentazioa bidali behar da:

* Se realizará el sorteo de plazas según los tramos, es decir, primero entre los y las integrantes del grupo A (quienes se hayan inscrito en el sorteo en años anteriores y no les haya tocado en ningún turno); una vez realizado el reparto y con las plazas que queden libres, se realizará el reparto entre las y los integrantes del tramo B (los que menos han participado); igualmente, una vez terminado las plazas restantes, se repartirán en el tramo C; y de la misma manera, las plazas que queden libres, se repartirán entre el grupo D.

* El reparto de números de boletos en los cuatro tramos será el mismo para evitar la extracción de cuatro números en el sorteo. Así, pueden existir niños y niñas en los cuatro tramos que coincidan con el mismo número para el sorteo, diferenciándose con el tramo en el que estén incluidos.

* La lista de espera que se genere respetará el mismo sistema de tramos.

8. Se habilitarán dos días para consultar en los lugares de inscripción e Internet las y los admitidos a sorteo, posibilitándose la realización de reclamaciones:

– 21 y 22 de abril de 2021.

9. En el momento del sorteo se sacará un número al azar. Se irán adjudicando las plazas, comenzando por el grupo A, según el orden de numeración de los grupos y la elección realizada.

Se adjudicará el primer turno elegido, siempre y cuando queden plazas libres para el número de niños y niñas que forman el grupo. En el caso de que no haya plazas en la primera opción, se le adjudicará la segunda, y así sucesivamente.

10. Cuando en ninguna de las opciones realizadas queden plazas para todas y todos los integrantes del grupo correspondiente, se seguirá con el procedimiento de adjudicación con el siguiente grupo.

11. Todas las personas que en el sorteo no hayan sido agraciados/as pasarán a formar una lista de espera. Una vez pasado el plazo de inscripción definitiva para los y las agraciadas en el sorteo, aquellas plazas que hayan sido rechazadas volverán a ser asignadas a las personas integrantes de la lista.

12. El resultado de las plazas adjudicadas se hará público inmediatamente después de que haya tenido lugar el sorteo.

13. Si para cuando finalice el plazo establecido no se hubiera realizado el pago total de la cuota correspondiente, las plazas sobrantes pasarán a formar parte de la lista de plazas vacantes.

Junto al justificante del pago de la cuota, se deberá enviar la siguiente documentación:

– Behin betiko inskripzio orria behar bezala beteta, bertan agertzen diren datuekin ados daudela adierazi eta sina dezaten.

– Umearen nortasun agiriaren edo dagokion familia-liburu orriaren fotokopia.

– Medikuarien fitxa, behar bezala bete.

– Agiri neurriko argazki bat.

– Parte-hartzailearen Osakidetzako txartelaren fotokopia, edo beste gaixotasun aseguruaren batena.

– Familia ugariarentzako (arrunta eta berezia) prezio murriztuaren onuradun izateko; egoera hori egiaztatzen duen titulua- ren edo txartelaren kopia aurkeztu behar da edo, bere kasuan, Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatuko dio egoera horren gaineko datuak, eskumena duen organoan (Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila) kontsultatzeko.

– Familia guraso bakarrentzako prezio murriztuaren onuradun izateko; familia liburuak aurkeztu behar da.

– Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) edo Gizarte Larraldietarako Laguntzak (GLL) jasotzen duten familientzako prezio murriztuaren onuradun izateko; diru laguntza horien onuradunak direla egiaztatzen duen agiriaren kopia aurkeztu behar da. Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentaren kasuan, ez da beharrezkoa izango frogagiria aurkeztea, baldin eta Gipuzkoako Foru Aldundiari, egoera horren gaineko datuak, eskumena duen organoan (Lanbide), kontsultatzeko eskaera egiten bazaio.

– Kide guztiak langabezian dauden familientzako prezio murriztuaren onuradun izateko, langabezi txartela edo txartelak aurkeztu behar dira.

– Prezioaren onuraduna izateko hileko diru sarreraren tartearen arabera, beharrezkoa izango da eskatzea Gipuzkoako Foru Aldundiari Ogasuna eta Finantza Departamentuko PFEZren datuak kontsultatzea.

14. Inskripzioak formalizatzeko epea amaituta, bete gabe geratutako lekuak itxaron zerrendan daudenei esleituko zaizkie, zerrendako hurrenkeraren arabera.

4. artikulua. Kuota.

1. «Udalekuak 2021» eta «Gazte Oporraldiak 2021» kanpainetan eskaintzen diren txanda eta instalazioetan lekua izateko prezio publikoak edo tarifak foru dekretu baten bidez ezarriko dira (kuota ordaintzean indarrean dagoen udaleku eta kanpamentuetako egonaldien prezio publikoak buruzko foru dekretuaren bidez).

Zenbatekoa 50,00 euro baino gehiago denean bi zatitan ordaintzeko aukera emango da. Aitzitik, aipatutako aukera hori ez da emango plazaren esleipenak 2021eko maiatzaren 31ren ondoren ematen badira.

2. Berariaz prestatuko den abonua-agiriaren ageri den kontu korrontean sartuko da kuota. Interesatu bakoitzari abonua-agiri hori emango zaio beraren eskabidea onetsi duen ebazpenaren jakinarazpenarekin batera eta bigarren bidalketa egingo zaie bi zatitan ordaintzeko aukeratu dituzten hurrengo hilabetearen zehar. Interesatuak edozein informazioa jasotzeko aukeratu duen bitarteko bidez (posta arrunta edo posta elektronikoa bitartez).

3. Lekuaren esleipena ez da behin betikoa izango harik eta kuota osorik ordaindu dela frogatu eta eskatzen diren agiri guztiak aurkeztu arte.

5. artikulua. Parte-hartzaileek bete beharreko arauak.

Instalazio bakoitzeko arau orokorrak parte hartzaile guztiei jakinaraziko zaizkie iristen direnean, eta horietaz gain honako arau hauek ere bete beharko dituzte:

– Boletín de inscripción definitiva debidamente cumplimentado, al objeto de que se proceda a la conformidad de los datos y a la rúbrica del citado boletín de inscripción.

– Fotocopia del documento de identidad del niño o niña o de la hoja del libro de familia donde aparezca.

– Ficha médica debidamente cumplimentada y firmada.

– Una fotografía tamaño carnet.

– Fotocopia de la tarjeta individual sanitaria del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza o de cualquier otro tipo de seguro de enfermedad de la persona participante.

– Para beneficiarse del precio reducido para familias poseedoras del título de familia numerosa (ordinaria y especial), se deberá presentar fotocopia del título o carnet que les acredite como tales o en su caso, solicitar a la Diputación Foral de Gipuzkoa que consulte sus datos relativos a dicha situación al órgano competente: Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales del Gobierno Vasco.

– Para beneficiarse del precio reducido para familias monomarentales o monoparentales, se deberá presentar el libro de familia.

– Para beneficiarse del precio reducido para las familias perceptoras de la Renta de Garantía de Ingresos (RGI) o de las Ayudas de Emergencia Social (A.E.S.), se deberá presentar justificante de ser beneficiarios o beneficiarias de dichas ayudas. En el caso de la Renta de Garantía de Ingresos (RGI), no será necesario aportar dicha documentación siempre que se solicite a la Diputación Foral de Gipuzkoa que consulte sus datos relativos a dicha situación al órgano competente: Lanbide.

– Para beneficiarse del precio reducido para las familias con todos los miembros en paro se deberá presentar tarjeta o tarjetas de desempleo.

– Para beneficiarse del precio por tramos de ingresos mensuales será preciso solicitar a la Diputación Foral de Gipuzkoa que consulte los datos de I.R.P.F. al Departamento de Hacienda y Finanzas.

14. Una vez finalizado el plazo de formalización de las inscripciones, las plazas que no hubieran sido cubiertas volverán a ser asignadas, por estricto orden, a quienes integren la lista de espera.

Artículo 4.º Cuota.

1. Los precios públicos o tarifas para la participación en las diferentes tandas e instalaciones que se ofertan dentro de las campañas de verano «Udalekuak 2021» y «Gazte Oporraldiak 2021», vendrán determinadas por el decreto foral regulador de los precios públicos para las estancias en colonias y campamentos que se encuentre en vigor en el momento de efectuar el ingreso de las correspondientes cuotas.

Cuando el importe supere los 50,00 euros, la cuota podrá pagarse en dos plazos. Esta opción no se contemplará cuando las plazas sean adjudicadas después del 31 de mayo de 2021.

2. La cuota se ingresará en la cuenta corriente indicada en el abonaré personal elaborado a tal efecto. De éste se dará traslado a cada persona interesada junto con la notificación de la resolución favorable de su solicitud y, posteriormente, en un plazo no superior a un mes, se enviará un segundo abonaré a quienes optan por el abono en dos plazos. El medio será el elegido para las diferentes comunicaciones (correo ordinario o correo electrónico).

3. La adjudicación de la plaza no será definitiva en tanto no se verifique el abono total de la cuota y la presentación de la documentación exigida al efecto.

Artículo 5.º Normas a cumplir por los y las participantes.

Además de las normas generales de cada instalación, de las que serán informados al llegar a la misma, también se deberán cumplir las siguientes:

- Orduetgia errespetatzea.
- Jarduera guztietan parte hartzea.
- Logeletan ez jatea edo edatea.
- Erabiltzen den materiala eta oro har instalazioak zaintzea.
- Aterpetxetik ez irtetea begiralearen baimenik gabe.

– Jardueraren garapenak mugatuko du telefono mugikorren, tabletaren eta antzeko gailuen erabilera. Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du erantzukizunik hartuko halakoak galtzen edo lapurtzen badira edo kalterik hartzen badute. Erakundeak berdin egingo du parte hartzaileek jarduerara eramaten dituzten objektu baliotsu edo diruari dagokienez.

Arauk urratzen badira, ekintzen larritasuna eta berrerortzea kontuan hartuta, eta egoera bere onera bueltatzea ezinezkotzat jota, parte hartzailea instalaziotik bidali ahal izango da, beti ere inskripzio boletinan azaltzen den pertsona, aita, ama edo tutoreari gertatutakoa jakinarazita; aitarenean, amarenean edo tutorearen kargura izango da parte hartzailea bere etxera itzultzea.

6. artikulua. Datuen babesa.

Deialdi honetako informazioa eta datu pertsonalak, Datu Pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren babespean daude. Udaleku kanpainan eskuratzen diren datu pertsonalak, Gazteria. Zuzendaritzak kudeatzen duen haur, nerabe eta gazte- en kudeaketa helburu duen fitxategian sartuko dira.

Datu horiek beste erakunde publikoei laga edo jakinarazi dakizkieke udako kanpaina garatzeko beharrezkoak eta aurreikusita dauden egoeretan.

Aldundiak, udako kanpaina parte hartzen duten adingabeen irudiak atera, eta www.gipuzkoangazte.eus web orrialdean (adibidez Egonaldiaren Egunkarian) edo bestelako euskarri batean erabili ahal izango ditu, betiere arduradunek baimena eman badute. Irudiak ez dira adingabearen intimitatearen kontrakoak izango.

Nahi izanez gero, sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dira ondorengo helbidera idatzizko eskaera bat bidaliz: Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentua, Idazkaritza Teknikoa, Gipuzkoa Plaza z/g, 20004 Donostia, edo egoitza elektronikoaren bitartez <https://www.gfaegoitza.eus>.

7. artikulua. Baldintzak onartzea.

COVID-19ak eragindako egoerarak motibatuta eta osasun agintariak emandako aholkuei jarraituz, programak aldaketak jasan ditzake. Aholku horien arabera, gertatu daiteke aurrikusitako jardueren bat ezinezkoa izatea egitea. Kasu honetan, izen-emateraren ordainketa itzuli egingo da. Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du inongo kasuan partehartzailea beste jarduera batean lekua emateko konpromisua hartuko.

COVID-19a dela-eta, jarduera egoki baterako higiene eta segurtasun neurriak dagokienez, parte-hartzaileek osasun-agintariak emandako aholkuak eta neurriak bete beharko dituzte ekin-tzan parte hartu ahal izateko.

Kanpainetan parte hartzeko izena emateak foru agindu honetan ezarritako baldintza guztien onarpena ekarriko du.

Xedapen Gehigarria. Garapena eta gauzatzea.

Ahalmena ematen zaio Gazteria Zuzendaritza Nagusiarri «Udalekuak 2021» eta «Gazte Oporraldiak 2021» udako kanpainak garatu eta berearazteko beharrezkoak diren ekintza eta ebazpen guztiak emateko.

- Respetar el horario.
- Tomar parte en todas las actividades.
- No comer ni beber en los dormitorios.
- Cuidar tanto el material que se utilice como las instalaciones en general.
- No se podrá salir del albergue sin autorización del personal monitor.
- El uso de teléfono móvil, tablet u otros elementos similares estará restringido por el desarrollo de la actividad. La Diputación Foral de Gipuzkoa no se responsabilizará de la pérdida, robo o desperfecto de los mismos. Lo mismo sucederá con otros objetos de valor o con el dinero que los y las participantes lleven a la actividad.

En caso de incumplimiento, la persona participante, dependiendo de la gravedad de los hechos y la reincidencia, y una vez vista la imposibilidad de reconducir la situación, podrá ser expulsada de la instalación, informando en todo momento al padre, a la madre o a la persona tutora que figure en el boletín de inscripción, de la situación creada. Será por cuenta del padre, la madre o tutor/a el traslado del/la participante a su domicilio.

Artículo 6.º Protección de datos.

La información y los datos personales objeto de la presente convocatoria se encuentran amparados por lo dispuesto en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales. Los datos personales facilitados irán a un fichero para la gestión de la infancia, la adolescencia y la juventud gestionado por la Dirección de Juventud.

Estos datos se cederán o comunicarán a otras instituciones públicas en los supuestos previstos y necesarios para el desarrollo de la campaña de verano.

Únicamente se tomarán y difundirán (a través de la web www.gipuzkoangazte.eus (ejemplo, diario de estancia) o de otros soportes, las imágenes de aquellos niños y niñas participantes en la campaña de verano, cuyas personas responsables hayan autorizado su cesión. Las imágenes no atentarán contra la intimidad de las y los menores.

Se podrán ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición a los mismos dirigiendo un escrito a: Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes, Secretaría Técnica, Plaza Gipuzkoa s/n, 20004, San Sebastián o a través de la sede electrónica <https://www.gfaegoitza.eus>.

Artículo 7.º Aceptación de condiciones.

El programa podrá variar con motivo de la situación COVID-19 del momento y de las indicaciones de las autoridades sanitarias. En función de éstas indicaciones puede darse que algunas de las actividades previstas no se puedan desarrollar. En este caso el importe de la inscripción será devuelto. En ningún caso la Diputación Foral de Gipuzkoa asumirá el compromiso de reubicación del participante en una actividad alternativa.

Para el adecuado desarrollo de las actividades en cuanto a medidas de higiene y seguridad, las personas participantes deberán cumplir con las indicaciones que se den y las medidas que se establezcan por parte de las autoridades sanitarias en relación a la pandemia del COVID-19.

La inscripción para tomar parte en las campañas supone la aceptación de todas las condiciones que se expresan en la presente orden foral.

Disposición adicional. Desarrollo y ejecución.

Se faculta a la Dirección General de Juventud para dictar cuantos actos y resoluciones resulten precisos para el desarrollo y ejecución de las campañas de verano «Udalekuak 2021» y «Gazte Oporraldiak 2021».

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da hori.

Donostia, 2021eko martxoaren 17a.—Iñaki Sainz Paredes,
idazkari teknikoa. (2042)

Lo que se publica para general conocimiento.

San Sebastián, a 17 de marzo de 2021.—El secretario técnico,
Iñaki Sainz Paredes. (2042)